

ENPRESEN ONLINE BANKAREN ERABILERA GIDA



Ordainagirien fitxategi sinplifikatua

(SORTZEKO URRATSAK)

URRATSA



**Ordainagiriaren sortzaile
sinplifikatura sartzea**



Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**



P3 URRATSA 1. Ordainagiren sortzaile sinplifikatura sartzea

1 2 3 4 5 6 7

SEPA zordunketa-fitxategiak sortzeko, ez da programarik instalatu edo deskargatu behar. Enpresen Online Bankan, fitxategia unean sortzea ahalbidetzen duten "online sortzaileak" ditugu.

Kobrantzarako ordainagiren online sortzailearen bertsio sinplifikatuak (19-14) zordunei kargurako zordunketa-fitxategiak modu errazean sortzeko aukera eman digu, zenbatekoa eta/edo kontzeptua aldatuta.

Enpresen Online Bankatik sartzeko:
"Fitxategiak (eskuineko menu bertikala) > Sorrera > Online sorrera > Kobratzeko ordainagiriak (19-14) sinplifikatua"

Online fitxategien sortzaileak

Online sorkuntzaren zerbitzuarekin sortak sortu eta Lineako bankuaren bidez bidal ditzakezu, ezer deskargatu eta instalatu beharrik gabe, eta datuak beti eskuragarri izango dituzu edozein ordenagailutatik.

SEPA formatuak

- Kobrantsak
Kobratzeko ordainagiriak eta aurreratuak (19-14)
Kobratzeko ordainagiriak (19-14) sinplifikatua
- Ordainketak
Transferentziak eta nominak (34-14)

Otros formatos*

- Kobrantsak
Ordainagiriak (q19)
Ordainagiriak (q19) sinplifikatua
Kredituen aurrerakinak (q58)
- Ordainketak
Transferentziak eta nominak (q34)
Mugaz gairdikoak (q34-1)
Helbideratutako ordainketak (q68)
Confirming

* AEB sortzaileetan (agindu-emaileak, onuradunak, etab.) biltegitutako datuak SEPA formatuko sortzaileetara aldatzeko bateragarritasun-arrazoiak direla-eta, horiek hartzen dituen fitxategi bat sortu behar da eta hura inportatu. Laguntzarik behar izanez gero, deitu ohiko laguntza-telefonora.



Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak: **Laguntza**

Enpresen online bankaren erabilera gida. **Ordainagiren fitxategi sinplifikatua**

“Kobrantzarako ordainagiri (19-14) sinplifikatua” sortzailea hautatu ondoren, leiho nagusia agertuko da, non informazioa kontzeptuen arabera multzokatuta ikus daitekeen.

Sortaren datu propioak, hartzekoduna eta zordunketak argi berezita ageri dira. Leihoaren diseinu hori pentsatuta dago, sortzen ari denean sortaren osaketa beti ikusteko moduan egon dadin.



KUTxabank

Kobrantza-ordainagiriak (19-14) (soildua)

inportatu sorta fitxategiak txostenak laguntza 

Sorta, hartzekodun eta zordunketen datuak informatzen edo aldatzen ditu fitxategi berri bat sortzeko.

sorta

Sortaren izena:

Sortze-data: 14/04/2021

Karguaren data: 

(eehhuuuu)

Gutzizkoa: 0 €

hautatu sorta 

hartzekoduna

Izena:


IFZ:

Atzizkia:

IBAN: **BKK**

zordunketak

Bezeroaren erreferentzia	Helbideratzearen titularraren izena	IBAN	Kontzeptua	Zenbatekoa
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/> €

inportatu excel-etik  **aldaketa masiboak**  **ezabatu**  **gehitu** 



URRATSA

**Sortaren datuak**

Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**

Landuko den edo lehendik landu den sorta identifikatzeko datuak dira:

- Sortaren izena
- Sorrera-data, sorta zer datatan prestatu den
- Zordunketa-data, zordunei kargua zer datatan egin nahi zaien
- Orotara, sortan sartutako ordainagiri guztien zenbateko osoa

Aplikazioa erabiltzen den lehen aldia bada, pantaila hori hutsik egongo da; ostera, lehendik lan egin bada, sortutako azken sortaren datuak egongo dira ikusgai.



Edonola ere, lehendik kargatutako datuak ez dituen beste sorta bat hasi nahi izanez gero, nahiko da **"berria"** botoia sakatzea.



Zordunketak edo beste edozein datu sartuta sorta prestatzen ari den bitartean, datuak gordetzen joan gaitzke **"Gorde"** botoia sakatuta.



URRATSA

**Hartzekodunaren datuak**

Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**


Lehen erabilera denez, hartzekodunaren datuak adierazi behar dira; helbideratze-agindu batean oinarrituta ordainagiriak igortzen eta aurkezten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa da hartzekoduna.

- **Hartzekodunaren izena**

- **IFZ**

- **Luzapena:** 3 digituko zenbakia izaten da, eta 000 lehenesten da. Jabekideen Komunitate baten kasuan, bat baino gehiago egon daitezke. Esate baterako: 000 hilekoa kobratzeko, eta 001 derramak kobratzeko. Datu hori erabiltzaileari ematen zaio, "Ordainagiriak helbideratzeko kontratua-Fitxategi informatikoa" alta ematean.

- **Jaulkitzailearen ordainketa-kontuaren IBANA:** IBANA beharrean, eskura dagoen datua BKK bada (kontuaren 20 digituak), kontua tekleatu behar da, eta gero BKK botoia sakatu. Horrela, automatikoki egiten da IBANerako konbertsioa.



Kobrantza-ordainagiriak (19-14) (soildua)


inportatu sorta fitxategiak txostenak laguntza

Hartzekodunaren datuak inportatzen edo aldatzen ditu fitxategi berri bat sortu aurretik

sorta




Sortaren izena:

Sortze-data: 17/04/2021

Karguaren data: 

(eehhuuuu)

Guztizkoa: 0 €

berria  gorde  sortu 

hartzekoduna

Izena:





IFZ:

Atzizkia:

IBAN: **BKK**

zordunketak

Bezeroaren erreferentzia	Helbideratzearen titularraren izena	IBAN	Kontzeptua	Zenbatekoa
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/> €

inportatu excel-etik  aldaketa masiboak  ezabatu  gehitu 



URRATSA



**Gehitu sortak edukiko
dituen zordunketak**



Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**

Hartzekodunaren datuak bete ondoren, kobratu beharreko zordunketen datuak taula batean sartuko dira, non zordunketa bakoitzaren informazio esanguratsuena ageri baita.



Eskuz egin daiteke, Excel dokumentu batetik edo lehendik sortutako sorta batetik datuak inportatuta.


Eskuz

Hartzekodunaren datuak osatu ondoren, fitxategi bat sortuko den lehen aldia bada, kobratu beharreko zordunketaren eremuak eskuz sartuko dira. Hurrengo aldietan kargatuta agertuko dira; beraz, aurreko sortarekiko aldaketaren bat duten eremuak bakarrik aldatu beharko dira eskuz.


Sortaren zordunketaren bat **ezabatu** nahi izanez gero, nahikoa da taula hautatzea eta "ezabatu" botoia sakatzea.


- **Bezeroaren erreferentzia:** datu hau helbideratze-agindua identifikatzen duen kodea da, eta hartzekodunaren eta zordunaren artean sinatutako mandatuaren dokumentutik jaso behar da (dokumentu horren bidez, adierazitako kontutik kobrantzak onartzen eta baimentzen dizkio zordunak hartzekodunari eta banku-entitateari, exekutatu ditzan). Zordun bakoitzerako erreferentzia bera mantendu beharko litzateke beti, eta ez da onartzen sorta berean erreferentzia bera duten bi zordunketa agertzea. Alfamerikoa izan daiteke.
- **Helbideratze-titularraren izena:** zordunaren izenaren berri eman behar da.
- **IBAN:** ordainagiria kobratzeko zordunaren kontuaren IBAN kodea tekleatu behar da. Eremu horretan ezin da tekleatu BKK-a bakarrik.
- **Kontzeptua:** zordunak kontuaren karguan ikusiko duen testua.
- **Zenbatekoa:** zordunari kobratu beharreko zenbatekoaren berri eman behar da.



 kutxabank

Kobranta-ordainagiriak (19-14) (soildua)


[inportatu sorta](#) [fitxategiak](#) [txostenak](#) [laguntza](#) 

 Sorta, hartzekodun eta zordunketen datuak informatzen edo aldatzen ditu fitxategi berri bat sortzeko.




sorta

Sortaren izena:

Sortze-data: 17/04/2021

Karguaren data: 
(eehhuuuu)

Gutzikoa: 300 €

[berria](#)  [gorde](#)  [sortu](#) 

hartzekoduna

Izena:





IFZ:

Atzizkia:

IBAN: [BKK](#)

zordunketak

Bezeroaren erreferentzia	Helbideratzearen titularraren izena	IBAN	Kontzeptua	Zenbatekoa	
<input type="text"/>	Ibon	<input type="text"/>	Martzoko ordainketa	100 €	<input type="checkbox"/>
<input type="text"/>	Iker	<input type="text"/>	Martozoko ordainketa	100 €	<input type="checkbox"/>
<input type="text"/>	Zigor	<input type="text"/>	Martzoko ordainketa	100 €	<input type="checkbox"/>

[inportatu excel-etik](#)  [aldaketa masiboak](#)  [ezabatu](#)  [gehitu](#) 




Datuak Exceletik inportatzea



Datuak Excel orri batera pasatzeko, pantailaren behealdean dagoen **"Inportatu Exceletik"** aukera sakatu, eta sartu beharreko fitxategia/kalkulu-orria aukeratu behar da.

1

Lehenik eta behin, dokumentuaren kokalekua adierazi behar da "Aztertu" botoian, eta gero "igo fitxategia" aukeran.



The screenshot shows the Kutzabank online banking interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'inportatu sorta', 'fitxategiak', 'txostenak', 'laguntza', and a power icon. Below this, a red warning banner reads: 'Sorta, hartzekodun eta zordunketen datuak informatzen edo aldatzen ditu fitxategi berri bat sortzeko.' The main area is divided into 'sorta' and 'hartzekoduna' sections. A modal dialog box titled 'Inportatu Microsoft Excel kalkulu-orri batetik' is open, containing a red warning banner: 'Hautatu sortari gehitzeko datuak dituen fitxategia eta sakatu igo fitxategia'. Below this, it says 'Fitxategiaren datuak' and '.xls eta .xlsx luzapeneko fitxategiak hauta ditzakezu'. There is a 'Datu-fitxategia:' label followed by a dropdown menu showing 'Seleccionar archivo' and 'Ningún archivo seleccionado'. At the bottom right of the dialog, there is a button labeled 'igo fitxategia' with a right-pointing arrow.



2

Inportatu beharreko jatorrizko fitxategiaren datuak hautatzea.

Jarraian, **Koaderno Eremuan** (bezeroaren erreferentzia, helbideratzearen titularraren izena, zordunaren kontua, zenbatekoa...) eskatutako datu bakoitza Excel dokumentuaren zer zutabetan dagoen adieraziko da, bakoitzerako **Jatorri Eremua** hedatuta.



Excel dokumentuan eskatutako daturen bat agertzen ez bada, falta den informazioa **“eremu-balioa informatu gabe”** aukeran tekleatu ahal izango da. **“Onartu”** sakatzean, datuak automatikoki sartuko dira.





Adibide honetan, Excel dokumentuaren lehen ilaran goiburuak ageri direla ikusten dugu; beraz, Online Bankan **“Lehen ilarak zutabeen izenak ditu” aukeran** sakatuko da. Horrela, Excel dokumentuaren **aurre-bisualizazioa** ikusiko dugu orrian bertan, eta **Jatorri Eremuaren (2)** gelaxkek eskatutako datu bakoitza Excelaren zer zutabetan dauden adieraziko dute.

Inportatu Microsoft Excel kalkulu-orri batetik

Hautatu inportatu nahi den fitxategiaren aukerak

Orriak:

Lehenengo lerroak zutabeetako izenak jasotzen ditu

Lehenengo lerroa datuekin:

Fitxategiaren aurrebista

Propietario	Nif	Cuenta
Ibon		

Adierazi jatorrizko fitxategiaren zein eremuri dagokion koadernoaren eremuetako bakoitza.

Koadernoaren eremu baten balioa ez badaukazu, erregistro guztietan balio bera sar dezakezu "Eremuko balioa ez da sartu" eremuan eremuaren balioa sartuz

Koadernoaren nahitaezko eremuak

Liburuxkako eremua	Jatorrizko eremua	Eredua	Jakinarazi gabeko eremuaren balioa
Bezeroaren erreferentzia Alfanumerikoa. Geh. 35 karaktere.	<input type="text" value="Nif"/>	45620414y	<input type="text"/>
Bezeroaren izena Alfanumerikoa. Geh. 70 karaktere.	<input type="text" value="Propietario"/>	Ibon	<input type="text"/>
Onuradunaren kontua Kontua IBAN formatuan, zuriunerik eta ikurrik gabe.	<input type="text" value="Cuenta"/>	ES542095014140910102...	<input type="text"/>
Zenbatekoa Zenbakizkoa. Geh. 11 karaktere. 2 dezimal.	<input type="text"/>		<input type="text"/>

Koadernoaren hautazko eremuak

Liburuxkako eremua	Jatorrizko eremua	Eredua	Jakinarazi gabeko eremuaren balioa
Kontzeptua Alfanumerikoa. Geh. 140 karaktere.	<input type="text"/>		<input type="text" value="Martzoko ordainketa"/>

atzera ↶ ados ↷ utzi ✕


Datuak okerrak badira, erroreak pantailaren goiko aldean agertzen dira, eta, horien gainean sakatuta, haien deskribapen zabala ageri zaigu pantailaren goiburuan.

Excel fitxategian erroreak zuzendu ondoren, prozesua errepikatzen da berriro. Prozesu zuzen baten emaitza gisa, datuak oraingo sortan kargatzen dira.



Inportatu datuak sorta batetik

Datuak sartzea lehendik sortutako sorta batetik, goiko menuaren "inportatu sorta" aukeraren bidez.



The screenshot shows the Kutzabank web interface for 'Kobrantsa-ordainagiriak (19-14) (soildua)'. The main menu includes 'inportatu sorta', 'fitxategiak', 'txostenak', and 'laguntza'. A message at the top states: 'Sorta, hartzekodun eta zordunketen datuak inportatzen edo aldatzen ditu fitxategi berri bat sortzeko.' The 'inportatu sorta' dialog box is open, displaying the following information:

- Message: 'Hautatu zer fitxategi inportatu nahi duzun, eta egin klik Onartu botoian.'
- Section: 'fitxategia'
- Text: 'Zordunketen fitxategiak inporta ditzakezu 19/19-14'
- Field: 'Hautatu fitxategia: [Seleccionar archivo] Ningún archivo seleccionado'
- Buttons: 'laguntza' and 'onartu' (checked)



URRATSA



**Sortaren datuak osatzea eta
sorta sortzea**



Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**

Sortaren hartzekodunaren eta zordunketen datuak adierazi ondoren, zordunketa-data berrikusi, eta, hala behar bada, aldatu egin behar da, fitxategiaren sorrera-data lehenesten baita.

Jarraian, izen bat eman behar zaio sortari, eta **"sortu"** botoia sakatu behar da; horrela, sartutako datu guztiak dituen fitxategia sortuko da. Guztia zuzena bada, abisu bat agertuko da, fitxategia zuzen sortu dela baieztatzeko.




*Garrantzitsua da fitxategiaren **zenbatekoa** jasotzea, datu hori bidalketan eskatuko baita.*



Une horretatik aurrera, fitxategia dagoeneko sortu da, eta leiho berean, **"bidali"** aukera bakarrik sakatu behar da. Horrela fitxategia bidalita geratuko da, eta adierazitako zordunketa-datan prozesatuko da.

Leiho horretan bertan "bidali" aukeran sakatzean, online Bankaren orria agertuko da zuzenean, bidaltzeko.



Kobrantza-ordainagiriak (19-14) (soildua)

inportatu sorta fitxategiak txostenak laguntza ⏻

✓ Une honetako sorta behar bezala gorde da.

sorta

Sortaren izena: cuota noviembre
Sortze-data: 28/10/2019
Karguaren data: 19042021 (eehhuuuu)
Gutzizkoa: 300 €

berria D gorde **sortu** ↻

hartzekoduna

Izena: comunidad propietarios
IFZ:
Atzizkia: 000
IBAN:
BKK

zordunketak

Bezeroaren erreferentzia	Helbideratzearen titularraren izena	IBAN	Kontzeptua	Zenbatekoa
1A	IBON		Martzoko ordainketa	100 €
2B	IKER		Martzoko ordainketa	100 €
3C	Zigor		Martzoko ordainketa	100 €

inportatu excel-etik ⇌ **aldaketa masiboak** 📄 ezabatu 🗑️ gehitu ⇌



URRATSA

**Aldaketa masiboak**

Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagiriaren fitxategi sinplifikatua**

Hainbatetan, fitxategi berri bat prestatu behar denean, aplikaziora sartzean sortutako azken fitxategiaren datuak agertuko dira. **"Aldaketa masiboak"** aukeraren bidez, zordunketa guztien zenbatekoa edo kontzeptua aldatu ahal izango da, pauso bakar batean, eta horrela fitxategi berri bat sortuko da.



Zordun jakin baten kontu-zenbakia aldatu nahi bada, eskuz egin beharko da.

zordunketak

Bezeroaren erreferentzia	Helbideratzearen titularren izena	IBAN	Kontzeptua	Zenbatekoa	
	IBON		Martzoko ordainketa	100 €	<input checked="" type="checkbox"/>
	IKER		Martzoko ordainketa	100 €	<input checked="" type="checkbox"/>
	Zigor		Martzoko ordainketa	100 €	<input checked="" type="checkbox"/>
EREMU HAUEN ALDAKETA MASIBOAK:			Kontzeptua	Zenbatekoa €	

aplikatu aldaketak ✓

⇌+

 ⇌+



URRATSA

**Fitxategia bidaltzea**

Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Ordainagirien fitxategi sinplifikatua**

Fitxategia bidal daiteke bai fitxategia sortzeko une berean ageri den **"bidali"** aukeraren bidez, bai online sortzailearen **"fitxategiak"** goiko menuaren bidez.

fitxategiak


Hautatu prozesatu nahi duzun fitxategia. Zuzenean bidal dezakezu zure lineako bankutik edo ekipoa gorde, aurrerago erabiltzeko

Sortaren izena	Zenbatekoa	Sortze-data	Aldaketaren data	Haut
cuota noviembre	963,53 €	28/10/2019	28/10/2019 12:33:32	<input type="radio"/>
cuota enero 2020	420 €	09/07/2019	19/07/2019 12:47:12	<input type="radio"/>
cuota enero 2020	420 €	09/07/2019	09/07/2019 14:16:17	<input type="radio"/>
cuota enero 2020	420 €	09/07/2019	09/07/2019 13:55:29	<input type="radio"/>
cuota diciembre 2º19	350 €	09/07/2019	09/07/2019 13:53:49	<input type="radio"/>
cuota julio	350 €	09/07/2019	09/07/2019 13:49:03	<input type="radio"/>
cuota julio	350 €	09/07/2019	09/07/2019 13:47:00	<input type="radio"/>
cuota julio	400 €	09/07/2019	09/07/2019 13:46:05	<input type="radio"/>
derrama	100 €	26/06/2019	26/06/2019 14:50:19	<input type="radio"/>
Junio 2019- Cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 19:04:24	<input type="radio"/>
Febrero 2020 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:50:02	<input type="radio"/>
Enero 2020 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:49:25	<input type="radio"/>
Diciembre 2019 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:48:47	<input type="radio"/>
Noviembre 2019 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:48:12	<input type="radio"/>
Octubre 2019 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:47:40	<input type="radio"/>
Septiembre 2019 - cuota comunidad	400 €	21/05/2019	17/06/2019 15:47:14	<input type="radio"/>

bidali | gorde honela | ezabatu



Egiaztapena egiteko eta **akatsak saihesteko**, erabiltzaileak bidali nahi duen **fitxategiaren zenbateko osoa tekleatu beharko** du "zenbatekoa" eremuan, lehendik adierazitako zordunketa-datan prozesatu dadin.



Fitxategiak

Castellano [Bulego eta kutxazainak](#) [Laguntza](#)

Laburpena Kontuak Txartelak Inbertsioak Merkatuak Maileguak Zerbitzuak

Bidalketak Jasotzea Sorrera


Bidalketa berria Egindako bidalketak AEB34 transf. prozesatuak

Bidaltzeko fitxategi-mota aukeratu

ordainagiriari eta zordunketak bidaltzea - AEB19 PRUEBA

Fitxategiaren bidalketa berria Urratsa: 1 2

Bidalketaren datuak

 Fitxategiak bidali aurretik balidatzeko prozesua
Bidalitako fitxategiak behar bezala exekutatzeko direla bermatzeko, bidali aurretiko balidatzeak gehitu dira. Zure eskura jarriko da aurkitutako errore-zerrenda, zuzenketak egin ahal izan ditzaun.

Fitxategia 19fileQ191420210417145628580.Q1X


Zenbatekoa €

EZEZTATU [Erroreak konpontzeko laguntza](#) **JARRAITU** »

NIRE KOMUNIKAZIOAK

- Korrespondentzia
- Abisu-postontzia
- Dokumentuak
- Nire kudeatzailea
Itsaso San Sebastian
Aurre

SARTU HEMEN


- Online erosketarako baimena 
- Informazio fiskala
- Onuradunen agenda
- Sinadurak
- Fitxategiak



Bidalketa sinatzea

Azkenik, "jarraitu" sakatzean, sinaduraren leihoa agertuko da:

- Sinadura-gakoa duen erabiltzaile bat bada, eragiketa une horretan bertan sinatu ahal izango du, eta "onartu" sakatu ondoren, fitxategia bidaliko da adierazitako datan prozesatu dadin. Frogagiri bat sortuko da PDFn.
- Erabiltzailea sinatzailea ez bada, "onartu" sakatu beharko du, eta fitxategia sinatzeko zain geratuko da. Sinadurak dituen pertsona enpresen online Bankan sartzen denean, fitxategia sinatu ahal izango du "Sinadurak" karpetan sartuta, eta fitxategia automatikoki bidaliko da.



Lehen esan dugun moduan, sortzaile sinplifikatura hurrengoan sartzean, gordetako sorta agertuko da pantailan; hortaz, berriro erabili ahal izango da beste bidalketa bat egiteko, beharrezkoak diren aldaketak eginda.

Fitxategi guztiak blokean sinatzea



Kudeaketa errazteko, sinatu gabeko fitxategiak geratu badira, **“Sinadurak”** aukeratik (eskuineko menu bertikala, **1**) sinatu gabeko fitxategi guztiak hartu, eta eragiketa guztiak blokean sinatu ahal izango dira, banan-banan egin beharrean.

	Bidaltzeko data eta ordua	Erreferentzia	Fitxategi mota	Erregistro zenbakia	Prozesuaren data	Sinatzeko azken eguna	Zenbatekoa
<input type="checkbox"/>	2021/05/20 15:35:28	473296	ageriko ordainagiriak	3	2021/05/31	2021/06/05	300,00 €
<input type="checkbox"/>	2021/05/20 15:32:14	473289	ageriko ordainagiriak	3	2021/05/31	2021/06/05	300,00 €
<input type="checkbox"/>	2021/05/20 15:30:25	473287	ageriko ordainagiriak	3	2021/05/31	2021/06/05	300,00 €

Fitxategiak sinadura bat baino gehiago behar badu, Sinaduren atalean geratuko da (eskuineko menu bertikala, **1**) beharrezkoa den azken sinaduraren berri eman arte.

Sinadura guztiak jaso ondoren, bidalketa automatikoki egingo da.



Ezeztapenak

Hainbat fitxategi bidali badira zenbait exekuzio-datatan prozesatzeko eta, edozer dela eta, baliogabetu nahi badira, "fitxategiak" aukeratik (eskuineko menu bertikala, 1), prozesatzeko zain dauden fitxategiak aurkitu eta ezeztatu ahal izango dituzu epe barruan badaude (2).

Fitxategiak dataren beheranzko ordenaren arabera erakutsi

Ikusi

Azkenak
 Azken hamabost egunak
 Gaur
 Azken astea
 Azken hilabetea
 Daten artean

Bidaltzeko data eta ordua	Fitxategi mota	Egoera	Prozesuaren data	Sinatzeko azken eguna	Zenbatekoa
2021/04/17 15:09:44	ageriko ordainagiriak	Prozesatzeko	2021/05/18		300,00 €

Fitxategiaren xehetasuna

Erreferentzia 413817

Bidaltzeko data eta ordua 2021/04/17 15:09:44

Sinatzeko azken eguna

Prozesuaren data 2021/05/18

Fitxategi mota ageriko ordainagiriak

Eragiketak 3

Zenbatekoa 300,00 €

Egoera Prozesatzeko

fitxategia prozesatzeko zain dago.

EZEZTATU » (2)

2021/04/17 15:09:19	ageriko ordainagiriak	Izenpetzeko	2021/05/17	2021/05/17	300,00 €
2021/04/17 15:08:24	ageriko ordainagiriak	Izenpetzeko	2021/05/14	2021/05/17	300,00 €
2021/04/17 15:07:55	ageriko ordainagiriak	Izenpetzeko	2021/05/13	2021/05/17	300,00 €
2021/04/17 15:07:09	ageriko ordainagiriak	Izenpetzeko	2021/05/12	2021/05/17	300,00 €

Korrespondentzia

- Abisu-postontzia
- Dokumentuak
- Nire kudeatzailea
Itsaso San Sebastian Aurre

SARTU HEMEN

- Online erosketarako baimena
- Informazio fiskala
- Onuradunen agenda
- Sinadurak zain
- Fitxategiak (1)
- Nire eragiketak
- Nire ohiko eragiketak

LAGUNDUKO DIZUGU

- Bidaliezaguzu mezu bat
- Jasotako erantzunak
- Deiezaguzu 94 401 79 07


INFORMAZIOA

- Produktuak
- Indizeak
- Dibisak
- Tarifen liburua
- Azalpen-bideoa
- Eragiketen taula kanalaren arabera



Itzulketak

Zordunek itzultzen dituzten zordunketak hartzekodunaren kontuan zordunduko dira. Hala bada, abisu bat jasoko da, non prozesatu gabeko fitxategiak daudela adieraziko den.



The screenshot shows the Kutxabank website interface. At the top, there is a navigation bar with the logo, the text 'kutxabank', and a menu with options: 'Laburpena', 'Kontuak', 'Txartelak', 'Inbertsioak', 'Merkatuak', 'Maileguak', and 'Zerbitzuak'. On the right side of the navigation bar, there are links for 'Castellano', 'Bulego eta kutzazainak', and 'Laguntza'. Below the navigation bar, the main content area displays a warning message titled 'Abisu-postontzia' (Warning message). The message text is '16/11/2020 Tiene ficheros pendientes de recoger' (16/11/2020 You have pending files to collect). There is a link 'Ikusi guztiak' (View all) and a button 'AMAITU SAIOA' (End session). The bottom right corner shows the connection date and time: 'Aurreko konexioa: 21/05/20 15:26'.



Itzulitako ordainagiriaren xehetasuna dituen fitxategira sartuko gara, "Sartu > Zain dauden fitxategiak (1)" > Jasotzea (2) aukeran.

Castellano Bulego eta kutxazainak ? Laguntza

Laburpena Kontuak Txartelak Inbertsioak Merkatuak Maileguak Zerbitzuak

Fitxategiak

Bidalketak **Jasotzea** Sorrera

! Hauxe da aukeratutako erabiltzailearen postontzitik jaitsi dezakezun fitxategi zerrenda. Fitxategi bat jaitsi gura baduzu, jaitsi botoiaren gainean kokatu behar duzu. Aplikazioak zure ordenagailuan kokatzeko karpeta bat eskatuko du.

Erreferentzia	Bidalpen data	AEB mota	Deskripzioa	Tamaina (bytetan)	Jasota
	2018/10/26	AEB-19	19. koadernoaren itzulketaren erreferentzia 966570	6.020	✓ Jaitsi
	2014/01/23	AEB-19	19. koadernoaren itzulketaren erreferentzia 000092	114.380	✓ Jaitsi
	2014/01/23	AEB-19	19. koadernoaren itzulketaren erreferentzia 000092	161.336	✓ Jaitsi
	2014/01/23	AEB-19	19. koadernoaren itzulketaren erreferentzia 000092	208.292	✓ Jaitsi

AMAITU SAIOA

Aurreko konexioa: 21/05/19 17:51

NIRE KOMUNIKAZIOAK

- Korrespondentzia
- Abisu-postontzia**
- Dokumentuak
- Nire kudeatzailea




“Deskargatu” sakatzean, itzulketen fitxategia bezeroaren esku geratzen da. “Deskribapena” azpiko lerroan edo lerroetan klikatuta, “Helbideratze-xehetasunak” leihoa ikusten da, igorritako ordainagirien zerrendarekin.

Titular domiciliación	Importe	Concepto operación	Cuenta domiciliación
[REDACTED]	50,00	PRUEBA	[REDACTED]
Motivo de devolución:	ADEUDO DUPLICADO		
[REDACTED]	1,00	PRUEBA	[REDACTED]
Motivo de devolución:	NO CONFORME CON LA OPERACION		





Sortu PDFa sakatuz gero, hurrengo xehetasunen dokumentua eskuratzen da, non itzulitako ordainagirien berri ematen da.

 FICHERO DE DEVOLUCIÓN DE RECIBOS AEB19			
Presentador:	PRUEBA	NIF:	7
Fecha soporte:	2020-11-14	Sufijo:	000
Nº referencia:	203180086	Nº de registros totales:	2
		Importe total:	51,00

Ordenante:	PRUEBA	Cuenta de adeudo:	[REDACTED]
Importe:	51,00	Nº de registros:	2
Fecha adeudo:	2020-11-13	NIF:	7
		Sufijo:	000

Titular domiciliación	Importe	Concepto operación	Cuenta domiciliación	
[REDACTED]	50,00	PRUEBA	ES562095	!
Motivo de devolución:	ADEUDO DUPLICADO			
[REDACTED]	1,00	PRUEBA	ES562095	!3
Motivo de devolución:	NO CONFORME CON LA OPERACION			





Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**